

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko urriaren 2a III. urtea

Usurbil, 51. Zenbakia

***Bakerako deia  
lau haizetara***





## Txerrimunik ordainetan




Zorionak **Aitor Usandizaga**. Irailaren 25ean zure urtebetetze eguna izan zenez zorionak eman nahi dizkizugu. Muxu haundi bat. Etxekoak



Zorionak **Jon Telleria**. Zure urtebetetze eguna pasa bada ere ez pentsa ahaztu garenik. Zorionak eta muxu pila bat. Etxekoak.



Aupa **Ane**, zorionak! Urriaren 2an 2 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta "muxupotolo". Etxekoan eta frontoiko koadrilaren partez.



Zorionak **Garazi** eta **Andoni**. Ondo pasa zuen egunean, urriaren 4 eta 5ean eta muxu haundi bat etxekoan partez.



**Edurne Noriegak** joan den irailaren 23an egin zituen urteak. **Itxasok**, berriz, urriaren 13an egingo ditu. Zorionak bie. Etxekoak.



Irailaren 30eko partez zorionak ama, amona **M<sup>o</sup> Jesus Alkorta**. Zorionak zure urtebetetzean ta urte askotarako.

**Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondutakoak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena soilik ekarri behar duzu.**

**Hurrengo alea: urriaren 16an**

**Agurrak ekartzeko epea: urriaren 9a**

## Jaiotzak

**Maddi Larrañaga Balerdi**  
(1998-09-04)  
Galtzaragaina

**Maite Jimenez Orbegozo**  
(1998-09-11)  
Galtzaragaina

**Maddi Ibargoien Martinez**  
(1998-09-12)  
Muna Iurra

## EUSKO TRENBIDEAKEN NEGUKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	10.20*	10.30	11.00	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	09.45	10.05	10.30	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	22.15
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	06.45	07.05	07.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	08.45	09.05	09.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00	09.45	10.05	10.30
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00	11.45	12.05	12.30
						12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

\*Orioraino bakarrik

\*\* Aiaraino joaten da

\*Oriotik irtetzen da

\*\* Aiatik irtetzen da



- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialde ikastetxea
- Oiarde kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

- 37 19 51
- 36 11 12
- 36 20 13
- 36 12 16
- 36 38 95
- 37 24 98
- 37 15 94
- 37 20 01

- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkarte egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- Noaua! aldizkaria

- 36 21 78
- 46 46 22
- 27 22 22
- 37 32 28
- 37 17 51
- 36 63 40
- 47 09 76
- 36 03 21



# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

## Zuzendaria

Olatz Altuna

## Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,  
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,  
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,  
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospeide,  
Agurtzane Solabarrieta, Joseba  
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,  
Olatz Leoz, Agustin Esnaola, Izaskun  
Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro  
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña  
Arriaga, Urko Manterola eta Joxe  
Torregaray.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

## Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,  
Ainhoa Azpiroz.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker  
Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

## Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

## Tirada: 2.300 ale

## Lege-Gordailua: SS-668-96

## ISSN: 1136-6818

## Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du  
bere gain hartzen aldizkarian adie-  
razitako esanen eta iritzien erantzun-  
kizunik.



## Etorkizunak geurea IZAN BEHAR du

**Xabier Miguel Ezkerra**  
Ipar Euskal Herriatik

**E**torkizuna geurea da!  
Geurea da Euskal Herria!  
Askotan esan ohi ditugu  
horrelako esaldiak; sentimendu  
eta nahi sakonean oinarritutako  
esaldiak, gu geuk izan nahi dugu-  
na izateko norbaiten baimenaren  
zain bagina bezala. Hori ukatzen  
digutenean aurrean, Euskadi ta  
Askatasunak bere agirian dion  
bezalaxe dugun lehen zeregina  
Euskal Herri gisa pentsatzen has-  
tea da. Guztion artean.

Pagolan edo Faltzesen Euskal  
Herrian gaudela sentitu behar  
dugu, esan beharrik izan gabe.  
Erosketak egitera edo hondartza-  
ra joaten garenean Frantziara ez  
goazela sentitu behar dugu,  
sagardotegietara joaten garene-  
an Espainian ez gaudela sentitu  
behar dugun bezalaxe.

Euskara euskaldun egiten gai-  
tuena dela diogu, baina gure hiz-  
kuntza bigarren mailan geratzen  
bazaigu ezinezkoa izango da  
Euskal Herriaren etorkizuna ziurta-  
tzea. Ezin dugu onartu, beraz,  
Osakidetako anbulatorioan edo  
antzeko beste edozein zentrotan  
euskaraz bakarrik hitz egiten du-  
ten haurrek edo adineko pertso-  
nek bere etxetik kanpo sentitzea  
eta itzultzailearen beharrean iza-  
tea. Ezin dugu normalizat hartu  
kotxea erosterakoan bere katalo-  
go tekniko euskaraz ez egotea.

Zer nolako justizia sozialean oina-  
rritutako Euskal Herria eraikiko  
dugu batzuek etengabe ordu  
extrak eginez beste askoren lan-  
gabezirako? Zer nolako Herria

eraikiko dugu alardean Madrilgo  
turisten konpainia onartuz eta ber-  
tako emakumeak baztertuz? Nola  
eraiki behar dugu Euskal Herria  
mila herritarretatik bat kartzelan  
edo deserrian dagoela?

Egoera eta arazo gordin hauen  
zerranda amaigabea litzateke.  
Bidezko irtenbidea ematea, berriz,  
ez da egun bateko gauza, euskal  
gizartearen eguneroko lan tinkoari  
esker lortuko den zerbait baizik.  
Eguneroko aurrerapauso txiki  
horiek itzulezinak bilakatu behar  
ditugu. Gure Herria bera izatea  
oztopatzen dutenak, Euskal  
Herriaren eskubideetan oinarritzen  
ez den bakea ezinezkoa dela  
onartu beharrean jarri behar ditu-  
gu.

Bere etorkizunaren jabe den  
Herria bezala pentsatzen eta jar-  
duten hasi behar dugu. Euskal  
gizartearen gehiengo independente-  
ziaren bidean urrats sakonak  
eta erabakiorrak ematen baditu,  
ez dago Herri hau geldituko duen  
Bruneterik. Eta euskal gizartearen  
gehiengoak urrats historikoa  
eman du Lizarran. Euskadi ta  
Askatasunak ondo entzun eta su-  
eten mugagabea emanez pasa  
digu lekukoa. Gizartearen esku  
dago orain, eta gizartea ni, Ipar  
Euskal Herriatik gogoeta hauek  
bidaltzen dizkizuna, eta zu, nire  
herriko irakurlea, gara. Zuk eta nik  
dugu lekukoa. Zuk eta nik ahalbi-  
deratu behar ditugu bi esaldi  
hauek:

Etorkizuna geurea da! Euskal  
Herria geurea da!



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

**Azala: 1985eko  
Santxabeletan usurbildar  
gazteak adarra jotzen**





### Hiru usurbildar epaituak

Jakingo duzuenek, euskaldunoi dagozkigun hizkuntz eskubideak aldarrikatzeagatik 3 usurbildar epaituak izango dira. Beraien delitua? Epaitegietan euskararen bazterketa salatzea. Delitua al da?

Tamalez, Euskal Herriari herri bezala dagozkion eskubideak ez zaizkio oraindik onartzen. Gure kultura zapaldua dago, eta eskubideak onartu beharrean ogi-apurrak eskeintzen dizkigute. Ez dugu karitaterik nahi, dagokiguna baizik! Euskararen egoera hobetu da bai, baina horrek ez du esan nahi bere etorkizuna ziurtatua dagoenik. Lan asko dago euskararen alde egiteke, herri mugimenduan, ikastetxeetan, epaitegietan, kalean, etab.

Egoera honen aurrean ezin gara lasai egon, euskalduna zaren heinean zure eskubideak une oro bortxatzen dituzte. Beraz, ondorengo mobilizazio hauetara azal zaitez!

- Urriak 9, salaketa eguna Euskal Herri osoan (ekintzak antolatuko dira herrian)

- Urriak 10, Usurbilen frontoitik manifestazioa 20.00etan.

- Urriak 13, goizeko 9:30etan Donostiako epaitegi aurrean konzentrazioa. Sei gazte epaituko dituzte, horietatik bat usurbildarra.

Guztion artean egingo dugu. Jo ta ke dagokiguna lortu arte!

### Usurbilgo E.H.E.

### Apelliduak abizendu

Izen-abizenak euskalduntze-ko kanpainak nahikoa denbora darama. Zer dela eta horrelakoa Usurbil bezalako herri euskaldun batean? Euskaldunak garenez, ez daukagu euskara ez den beste hizkuntza batean gure izen-abizenak eraman beharrik. Horretarako zer egin behar dugu?

Udalak, Noaui!-k, eta Usurbilgo EHE-ek, deiturak euskalduntzeko aukera eskeintzen digute. Udaletxean eskaera-orria jaso, bete eta ondokoak eraman: nortasun agiriaren kopia, jaiotze agiria (Erregistro zibilean eskatu) eta euskaratu nahi diren izen-abizenak euskaraz erabiltzen direla frogatzen duten 3 agiri: matrikulak, karnetak, eskutitzak, eskabideak, ... Guztia udaletxera eraman eta listo.

Eta zer gertatzen da gero? Udalak hileko eskaerak bildu eta Euskaltzaindiari eskutitza bidaliko dio. Honen agiria jasotzean eskaera-orriari eta gairontzeko dokumentazioari erantsi eta Erregistro Zibilera eramango ditu Udalak. Hilabete batzuetara Erregistro Zibiletik deia jasoko du eskatzaileak aldaketaren agiriak jasotzeko.

Izen-abizenak euskalduntze-ko asmoa baldin baduzu, oraintxe da une egokia.

**Amaia Imaz**



*Hara, hara! Zein futbol talde dugu argazkikoa? Ez al da Guerrero ezkerretan makurtuta dagoena? Agian Ronaldo izango da beste aldean dagoena? Bai zera, bertsozaleek osatutako taldea duzue. Bertsolarien aurka jokatu zuten Antzuolan urteroko futbol partidua eta garaipena lortu ere bai.*

**N•I**  
**Ileapaindegia**

MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 I.A  
Telefona: 943 36 19

**EH**

**Euskal Herritarrok**

*Urriaren 25ean  
kanpoan  
bazara eman postaz  
zure botoa*

Argibide gehiago Aitzaga tabernan  
Tel.: 943 36 02 17

**LIZARDI**  
**LIBRYDENDA**

**3kasterte berrirako material guztia hemen aurkituko duzu!**


K/ Etxebeste, 1 Telf: 943 36 11 15



# Berriketan

## Joxe Aburruza Aguirre

**Txikierdikoa da bera. Txulonean jaio zen eta bertan bizi da orain ere. 68 urte ditu eta golfean jokatzeko ikasi zuen gaztetan. Aldamenean zuten golf zelaira joaten zirenean aberatsei makilak eramatera.**



**Lasarte, Donostia, Usurbil, guztiak daude Txikierditik gertu. Nora joaten zinen zu eskolara?**

Aurrena Zubietara joan nintzen, handik Usurbila Gertrudisena, hurrena Lasartera Pilarrena eta azkenean Donostiara. Eskola guzti horiek pasatzen nituen 15 urte egin nituen arte.

**Hala ere baserrian bertan lana egin behar.**

8-9 urterekin goizean Zubietara joaten nintzen eskolara eta arratsaldera golf zelaira, diru piska bat ateratzera. Handik urte pare batera, ama Michelinen lanean hasi zenean udaran goizean 6.00etarako behiak biltzen nituen. Esnea aldameneko baserrira eramanean eta sukaldeko suak pizten nuen.

**Zuk pizten zenuen sua?**

Taldea egin beharra zegoen. Iriña zegoenean taldea egin erre eta esnez betetako katiluetan txiki-txiki eginda jartzen nituen taloak. Beranduxeago amona eta arreba jeisten ziren nik prestatutako gosaria jatera.

**Golf zelaira askotan joaten al zineten?**

Ahal zen guztietan. Goizean behiak larrera eramanean eta segituan golf-era joaten ginen. Diru piska bat ateratzen bagenuen ondo eta beste la etxera bazkaltzera. Hala ere, arratsaldean beriz han izaten nintzen.

**Eta etxeratu noiz?**

Behin baino gehiagotan ilundu ondoren etortzen nintzen mutil koxkorra nintzenean. Bidean, geltoki zaharrean "trabesak" egoten ziren pilotuta. Ilunpetan niretzako modukoa hartu eta etxera ekartzen nuen. Bestela mendira joan behar izaten genuen egur bila!

**Golf zelaian diru asko irabazten al zenuten?**

Nahikoa diru ateratzen genuen. Nik 8-9 urte ezkerotik nire mantenurako behar nuen dirua ateratzen nuen golf-ean makilak eramanean eta pelotak biltzen ibilita. Luzuriagako langileak irabazten zutena hortxe-hortxe ateratzen genuen guk. Ni Leon Ajuriarekin ibiltzen nintzen, baserriko erreminta lantegiaren jabea zen hura.

**Golfean jokatzeko badakizu beraz.**

Orain ere badut makil bat. Batzutan ematen dizkiot golpe batzuk. Lehen, golf zelaira zegoenean, urtean egun batean egun guztiko txapelketa egiten uzten ziguten. Zelai guztia guretzako.

**Hala ere gaztetako kontua izango zen hura.**

Hori bai, behin 15 urterekin Luzuriagan hasi nintzen lanean. Ez nituen egun onak pasatu hasieran. Gauean, lantokian ez zen mekanikorik egoten. Askotan 10.00etan ohera sartu eta goizeko 2.00-3.00ak aldera etxera etortzen zitzaizkidan, makina gaizki zebilela, eta konpontzera joateko esanaz. Ezkondu bitartean honela ibili nintzen. Gehiago ezin nuen jasan eta egunero gauez egiten nuen lana. Eskerrak azkenean errelebo-kako lana jarri zuten.

**Gaztetan nora joaten zineten Lasarte edo Usurbila?**

Ez bata eta ez bestera, Añorga aldera joaten ginen gehienetan. Irubiden dantzaldiak zeudenean hara joaten ginen lehenengo eta Lasartera gero. Etxera itzuli baino lehen alpargaterira joan eta zerbeza eta limonadaz betetako porroia edaten genuen. 11.00etarako etxera.

## XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78



## TABERNA



7 t'erdietan  
irekitzen dugu

**Goiz goizetik  
gosariak**

Iraza kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17

## BAR USURBIL

*Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak*

Eguzkitza



## TXOKOALDE

Joxe Loidi



### Behin hasi ezkerro...

**B**ehin hasi ezkerro... bukatu egin behar izaten omen dira gauzak, horrela erakusten zuten garai batean. Orain ere bada horrela pentsatzen duenik. Auzo honetako lanek zeresan haundia eman dute asfaltu honetan, ezetz esatea pekatu litzateke, eta oraindik ere izango da, handik edo hementik, lan kontu horien berri.

Nik azken errepasoa eman nahi diot gure auzo "berri-berriari". Farola txukun-txukunak jarri dituzte eta kolore polita ematen diote ilunabarrez. Bideak ere orain daude ondoen. Galipotaren usaina joanda

edukiko du baina bide berri-berriaren itxura ez dio inork kenduko, ez oraindik behintzat.

Momentu honetan Altzonazko zubia konponetzea ez da besterik falta. N-634 errepidetik Txokoaldera sartzerakoan bide onetik txarrera pasatzen ginen lehen, orain ezin horrelakorik esan. Zubirainoko bidea ere konpondu baitute.



Urdaiagara joateko bidea ez dute kopondu, baina behin-behineko "partxeak" jarri dituzte bideak okerrera egiten zuen tokietan. Orain lasaiagako ibili daiteke gure auzotik norabide guztietan.

## KALEBERRI

Ines Kamino



### Zaharrak berri "Bentan"

**A**stebete besterik ez du Airaun "Bentara noa Bentatik nator" tabernako diru kaxa berriak. Zer gertatu zaio ba? Lapurrak, lapurrak... lapurrak dabilzala. Ez dute denbora alferrik galtzen lapurrek. Bi hilabete beteko dira laister taberna beretik aurreko diru kaxa eta musika katea eraman zituztenetik, baina, berriz ere, tabernara sartu eta diru kaxa eraman dute.

Irailaren 24tik 25erako gauean, ostegun goizaldean burutu zuten lapurrek beren barrabaskeria. Goizeko 3.00ak aldera leiho txikia irekitzen saiatu ziren burni batekin, baina ezin zutela

ikusitakoan leihoko kristala hautsi, barrura sartu eta leihotik atera ziren diru-kaxa eta guzti. Ez zuten lapurretarako denbora askorik izan, alarma hotsa inguruan zabaldu baitzen segundu gutxi batzuetara. Hala ere, diru kaxa osoarekin alde egiteko aukera izan zuten. Kaxan 10.000 pezeta inguru zeuden, baina kaxa berak 100.000 pezeta baino gehiago balio du.

Alarma jotzen hasi zenean inguruko zenbait biztanle balkoira irten ziren, Irrati pubean zegoen jendea ere berehala hurbildu zen "Benta" aldera, baina ordurako ez zegoen

lapurren arrastorik. Kotxe batean sartu eta ziztu bizian alde egin omen zuten.

Ez dira urrutikoak izango. Behin baino ghehiagotan sartuak izango ziren tabernan lapurreta egin aurretik eta hipotesi guztiak ez baztertzeko, lehen lapurtu zuten berak izatea ez harritu. Izan ere, aurrekoan, Benta tabernaz gain zenbait etxe ere bisitatu baitzituzten inguru honetan.

Aian jatetxe batean lapurtu ondoren harrapatu bazituzten ere, hemen kontuz ibili beharko da lapurrekin, azken aldiari gehiago dabilzala dirudi.



# ATXEGALDE

## Non utzi behar dugu kotxea?

**A**zken aldi honetan, obrak direla eta, gure auzoa nahikoa nahastua dabil antolaketari dagokionez behintzat. Gauzak horrela, oso zaila da kotxea aparkatzeko lekua aurkitzea. Aparkalekuak gehiengotan, beti ez esateagatik, beteta daude eta gau partean, batez ere, kotxea uzteko leku egokia aurkitzea ezinezkoa da. Egoera honen aurrean, auzoko askok izaten dugun aukera bakarra kotxea espaloi gainean uztea izaten da.

Urbanizazioa berritzeko lanak direla eta, kale batzuk itxi egiten dituzte, beraz, ezin daitezke

bertako aparkalekuak erabili. Gainera, orain badirudi auzoan gero eta kotxe gehiago dagoela.

Kotxe guztiak kale batzuetan pilatzen dira eta, eguna joan eguna etorri, espaloiak kotxez beteta azaltzen zaizkigu. Egoera hau ikusita, udaltzaingotik eskatu digute,

Amagoia Mujika



ahal dugun neurrian behintzat, kotxeak ondo aparkatzeko eta espaloiak libre uzteko. Beraz, erosotasuna alde batera utzi eta kotxeak egoki utz ditzagun.



# KALEZAR

## Bideak ere berri dituzte

**H**orretarako garaia ere bazen alajaina! Azken bi asteetan zehar hortxe ikusi ditugu langile batzuk bidean gora eta behera galipota zabalduz Ibarrola eta Txikiardi aldean. Lehen lurra garraiatzen zuten kamioiek puskatutako bideek bazuten aurpegia txukuntzeko premia. Espero dut kamioi festa hau behingoz bukatzea, bestela laister lehengo arazo berarekin aurkituko baikara.

Bide batzuetan galipota bota badute, harrizko bideetan hormigoia zabalitzen aritu dira. Arratzaindik zakurtegira doan bidea adibidez, txukun-txukun utzi dute orain. Lehen, handik

pasatzea ia ezinezkoa zen, koska haundiak baitzeuden.

Horretaz gain bada nahiko mugimendu Saizar inguruan. Batetik sagardotegian bada kamioi, eskabadora, eta abarren aukera. Hortxe aritu dira jo ta su lurra atera eta atera. Oraingo honetan sagardotegia galanki haundituko da.

Urko Manterola



Bestetik, Harane futbol zelaian hasi dira jokalarien oihu eta zalapartak. Entrenamenduak izaten dituzte astean zehar eta partiduak asteburuetan.





# SANTUENEA

Agustin Esnaola



## Auzoa eta auzokoen alde

**G**aztea izan ezkeru Santuenean ez litzateke-ela biziko oraindik ere askotan entzuten diot jendeari.

Orain dela hilabete batzuk auzoaren ezizenez idatzi nuen, eta horietako ezizen batzuk izen ezkorrak ziren. Ezkortasun horren atzean beste iritzi bat ezkututzen dela uste dut: garai batean irabazitako fama, erre-kaz bestalde dagoen auzoa, kanpotik etorritako jendeaz bete zelako, Franco garaiko etxe itxusi batzuez osatu zelako...

Baina jendea nahastuta dagoela uste dut. Hau ez da

"Tanger" ezta ere "Hollywood", seguru nagoena zera da: hau ez dela auzo marjinal bat.

Orain dela urte batzuk kale guztiak konpondu zituzten, urbanizazio txukun bat egin zitzaion, zubi erromaniko baten gainean "Guggenheim"en antzeko dekorazio bat jarri



digute, frontoi bat eraikitzeko asmotan ere badaude...

Horregatik, batzuetan entzun izan ditudan hitz maltzur horiek (Santuenea dela biziko litzatekeen munduko azken tokia edo eta Santuenean ez dela euskaraz hitz egiten...) hemen lekurik ez dutela uste dut.

Gehiago esango nuke, Kaleberretik Santuenera bizitzera etorritako bati entzun izan diot Santuenea dela auzo biziena, auzo bizitza duelako noski.

Santuenean bizi garenok lasai eta gustora bizi gara, bai horixe.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Udazkenaren atarian

**U**dazkenarekin batera laister hostoak zuhaitzetatik erortzen hasiko dira, baina sagarrak ere bai. Izan ere, urteko sagardoa egiteko baserritarrek inork ikusten ez duen lan bat egin behar izaten dute: sagarrondoetako sagarra bildu hain zuzen ere.

Sagar bilketari ekiteko ez da asko falta, baina alde zuzenetatik zera esan nahiko nioke jendeari: mendira bidean aurkitzen diren sagarrak ez dira handik pasatzen direnentzat, sagarrondo bakoitzak badu bere jabea. Zergatik esaten dudan hau? Mendian bildu dituelakotan, baserritarren lurretan dau-

den hainbat fruitu beren etxeetara eramaten jende asko hasi da dagoeneko. Sagarrak, udareak, gaztainak...fruitu asko eramaten dituzte.

Batzuek lanean hasi beharko dute, baina udazkenarekin batera auzo honetako bi mutil gaztek beren lana amaituko dute, txirindularitza lana noski. Bukatu berria dute denboraldia eta oso denbora gutxi egoten dira bizikleta eskuarte hartu gabe. Bizitza gogorra berena inongo dudarik gabe, zeren bai Josebak



eta bai Haimarrek lan gogorra burutu dutelako aurtengo denboraldian. Espero dezagun atsedeen pixka bat hartu ondoren, berriro lanean hasiko zaretela datorren urtean garaipen gehiago lortzeko asmoz.



# AGINAGA

Izaro Aizpurua



## Apustuz apustu San Praixkuetan

**U**dazkena iritsi zaigu Aginaga aldera ere, eta udazkenarekin batera bakoi-tzak bere zereginetara bueltatu behar. Hala Aginagako ikasle gazteenek estreinatu dute beren eskola berria, aurten elizako lokaletan lehendabiziko aldiz.

Bada ordea, udazkenak lanera bueltatzea ezezik festa giroa ekartzen dionik ere. San Praixku jaiak ere gainean ditugu. Beharbada, honezkero, programa ikusteko aukera ere izan duzue, baina badira programan azaltzen ez diren kontu batzuk festen inguruan. Esate

baterako futbol txapelketa bukatu da. Azken aste hauetan jokatu dira partiduak eta finala Gure Etxeko eta K2 taldeek jokatu bazuten ere, parte hartzaile guztiak joan omen ziren soziedadean egin zuten afarira. Giro polita izan omen zen, ea festetan ere horrelakorik izaten dugun!

Batzuek amaitu eta besteak prestaketa lanetan. Izan ere, aurten sega apustua ikusteko aukera izango dugu Irigoientxo baserriko zelaietan. **Inaxio Murua** eta **Joxe Pagola** zein baino zen, apustuan duten afaria irabazi asmoz.

Eta zein baino zen jardungo dute ere sokatiran arituko diren taldeak. Guztiek lana oso serio hartu dute eta egun hauetan ez da beste konturik auzoan. Onenak irabazi dezala!

Festa batzordeko kideak nahikoa kezkatuta dabilta. Ez dira beste urteetan baino kaxkarragoak, ezta gutxiagorik ere. Hala ere, aurten San Praixku berak ere bi lehiakide ditu: San kilometroak lehenengo asteburuan eta Santu Intsumisoa bigarrenen. Hemendik behintzat zuen parte hartzea eskatzen dugu, datorren urtean ere festak izan ditzagun.

# ZUBIETA

## Zubieta agirietan

Xabier Arregi



**H**erri-Batzarraren ekimenez, urri honetan ekingo dio **Jose Ramon Zubimendi** idazleak "Zubieta, agirietan" proiektuari. Egitasmo honek Zubietaren historia, izaera administratiboa eta egoera berezia aztertu nahi ditu, bes-

teak beste. Hori dela eta, agiri zahar eta berrien bilketa, ikerketa eta antolaketa eragingo du Herri-Batzarrak, orain arteko hutsune nabarmena egoki bete asmoz. Lan horrek bi azterbide nagusi izango ditu: bata zuzenekoa (agiritegia) eta bestea zeharkakoa (liburutegia).

Horrez gainera, herri-gintzaren lekuko zenbaiten berri ere jaso nahi da: trikuharriak, Aliriko zubia, Santio bidea eta Santio eliza, Donostiako sutea eta Zubietako batzarra, errebotejokoa, hipodromoa,

"Motza" bertsolaria... eta, oro har, merezi duten gai guztiak.

Material hori guztia bildu, zabalkunderako moduan (ber)idatzi, argazkiz apaindu eta liburu gisa argitaratuko da.

Hizkuntzari dagokionez, idazlana bera euskaraz egin eta euskaraz argitaratuko da; baina agiri historiko-juridikoen zatirik jakingarrienak eta aipamen bibliografikoak jatorrizko agirietan dauden hizkuntzan agertuz.

Liburua amaitzean, Zubietako Herri Artxiboan gordeko dira lanerako erabili diren agirien fotokopiak eta disko informatiboak.





# Bakea gertuago dago baina...

Euskadi Ta Asakatasunak erakunde armatuak su-eten mugagabea aldarrikatu zuen pasaden irailaren 17an. Erabaki honek zeresan ugari eman du

eta emango du aurrerantzean. *Noaua!* aldizkariak herriko alderdi politiko eta talde sozial desberdinen eritzia jakin nahi izan du zuzen-zuzenean.



## Usurbilgo LAB Sindikatua

**1** ETaren su-etenak erabateko bultzada ematen dio Euskal Herria itxaropen eta ilusioz betetzen duen subirano-



## Usurbilgo Senideak

**1** Euskal Herrian, behintzat, itxaropen izpitxoak piztu duela iruditzen zaigu. Gure artean ere, noski. Baina, egia esateko, hankak lurrean mantentzen ditugu, egoera horren ondorioak ez baititugu oraindik ikusi, batzuek ez bezala. Seguraski irailaren 17tik aurrera batzuk jatetxeetara, soziedadera edo zinema ikustera lasai asko joan dira aspaldiko par-

**1** Zer iruditzen zaizu ETaren su-etenaren ondorioz sortu den egoera berria?

**2** Zeintzuk dira hemendik aurrera eman behar direko urratsak?

tasuna eta bakerako bideari, ate haundi bat zabaltzen dio etorkizunari, baina Euskal Herriko herritarren eskuetan uzten du prozesuari aurrera eginarazteko erronka.

**2** Orain euskal gizarteari dagokio inizatiba har

tzea eta konponbideak exijitzea, orain geure eskuetan dago belaunaldiz belaunaldi gure herriak bizirik mantendu duen askatasunaren ametsa errealitate bihurtzea. Ezin dugu aukera historiko hau alperrik galdu.

tez, baina guk berdintzen dugu, kilometro pila egin beharrean gure senitartekoak 30 minutuz ikusi ahal izateko.

**2** Borrokatzen jarraitu behar dugu, ez dago beste erremediorik. Oraingoan ere, betiko moduan, gure presoak trukerako txanpon gisa erabiltzen saiatuko da gobernuak, aspaldi kendutako eskubideak itzuliz, adibidez preso batzuk Euskal Herrira hurbilduz edo gaixo dauden beste batzuk kaleratuz. Lehen ere gartzelako frontean su-

etena emana zuen ETak eta horrek ez du estatuaren politika aldarazi. Baina gu ez gara tranpa horretan eroriko. Hemen gauzak benetan konpondu behar dira eta, gure ustetan, denok ahaleginu behar dugu. Bakoitza bere ahalmenaren arabera inplikatu eta besteak inplikaraztea lortu behar dugu, ea behingo hau konpondu eta hainbeste sofrimendurekin amaitzen dugun. Bakea denon kontua da, eta ezin da "nik ez daukat hortan zerikusirik" esan eta beste aldera begiratu.





## Usurbilgo Euzko Alderdi Jeltzalea

**1** Ez da inongo zalantzarik ETAk pasa den irailaren 18tik aurrera aldarrikatu zuen su-etenak oso erreakzio desberdinak sortu dituela. Erreakzio horiek, aurrez bakoitzak mantendu zuen jarrerarekin zerikusi handia izan dute, eta jakin badakigu batzuentzat, alaitasun iturri izan beharrean, aurpegia erabat ilundu dien disgusto bat izan dela su-etenena. Erreakzio horrek agerian uzten ditu pertsona horien barrenak, eta ez du aparteko komentariarik merezi.

Gure alderdiak, zer esanik ez dago, lasaitu handia hartu



## Usurbilgo Euzko Alkartasuna

**1** Zalantzarik gabe egoera itxaropentsua agertzen zaigu. Itxaropentsua hainbat urtetan jarraitu duten indarkeriaren bidea utziz, bide politikoa aukeratzen dutelako herri honek sufritzen duen gatazka gainditzeko. Hor, bide politikoa eta instituzioetan aurkituko dute ikuspegi politiko ezberdinek topagunea; egoerari aurre egiteko topagunea. ETAk emandako pausoa bere neurrian baloratzen dugu. Pauso garrantzitsua da, seguruena hartzen erraza ez dena, eta batez ere, desblokeantea.

du berriarekin, eta ez bakarrik dugun apustua aurrera atera duelako; beharbada garrantzi handiagoa duen gertakari batek poztu eta lasaitu gaitu: joko politikoaren askapenak.

Izan ere, ETaren iharduerak aitzakia dotorea eskaintzen baitzion eztabaida politikoan bere jarrerak defendatzeko ahalmenik edo ausardiarik ez zuen bati baino gehiagori. Su-etenak aitzakia hori hankaz gora bota du, eta hemendik aurrera, joko demokratiko batean ezinbestekoa den bezala, nor berak definitu egin beharko du herri hau estrukturatzeko defendatzen duen proposamena.

**2** Gure partetik, garbi daude aurrerantzean

egin behar ditugun "etxeke lanak". Lehenik eta behin bake prozesu bat gauzatzeko eta sendotzeko beharrezkoak diren urratsak eman. Horrekin batera, askatasunean eta zintotasunean geure proiektua zehaztu eta defendatu. Azkenik, "makropolitika" gure alderdiaren arduradun nagusiei utziz, kaleko harremanak (bai politikoa eta bai pertsonalak) normaltzeko konprometua hartzen dugu Usurbilgo jeltzaleok. Bakea ez baita alderdien exekutibetatik bakarrik etorriko; Euskal Herriko kale eta bazter guztietan errekontziliazio ahalegin handi bat egin behar da. Hori da gure lanik garrantzitsuenak.

Une honetan armen isilaldi hau benetakoa den edo ez eztabaidatzea prozesua atzeratzea besterik ez dakar. Apustu garaia da, ausartak izateko garaia, prozesuaren porrotak guztion atsekabea lekarkeelako. Izango ditugu prozesua oztokatzen saiatuko direnak; orduan, alde bateko ok eta bestekook dugun pazientzia eta aguante osoa erakutsi behar dugu su-eten honekin arindu zaigun bake bideak amaiera izan dezan.

**2** Hasiera eman zaion prozesua sustatzeko giroa lasaitu beharra dago, gertakia, egoera eta elementu tentsionatzaileak ezabatuz. Horretarako, maila orokorrago batean, hainbat pauso eman

beharko lirakete: presoak eta beren senideek sufritzen duten egoera leundu, presoak etxetara gerturatuz; indarkeriaren biktimak gogoan izan prozesuan zehar; Lizarrako hitzarmenaren potentzialidadeak garatu; eta, bestelako indarkeria espresioak- kale borroka- baztertu, desagertarazi. Maila hurbilago batean, herri mailan: udal bizitza despolitizatu eta udal ordezkariaren zeregina udalerriaren kudeaketan zentratu, alderdien arteko harremana zainduz batez ere. Kale mailan, batzuk eta besteok gerturatze ahaleginak eginaz, herri bizitzan eta kontuetan parte hartuz, norik zer bultzatu edo antolatzen duen erreparatu gabe.





## Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordea

**1** Euforian erori gabe, berebiziko garrantzia duen uneak bizi ditugula uste dugu. Aspalditik esaten ari gara egiaztatu dute azken hilabeteotan euskal gizarteko zenbait alderdi, sektore sindikatu, herri mugimendu eta agente sozialek: egungo sistema politikoak ez ditu Euskal Herriaren eskubideak, eta are

gutxiago nahiak, asetzen. Duela hogeita urte gauzak ez ziren behar bezala konpondu, eta sasi-irteera hark eragindako zoritxarreko ondorioak denok ezagutzen ditugu. Egoera berri hau horrela aztertu du ETAk berak ere, eta su-etena iragarri du konponbide horren joraketan borroka armatua aitzakia izan ez dadin.

**2** Gure aldetik, hainbeste preso, deportatu eta errefuxiatu eragin dituzten arrazoiak dira errotik desagertarazi behar direnak, hau da, errepresioa baztertu eta Euskal

Herriaren eskubideak errekonozitu eta onartzea. Horrela ulertzen dugu benetako konponbidea, benetako amnistia. Urrats garrantzitsu batzuk eman dira (Lizarrako akordioa, ETaren su-etena) eta orain badirudi beste aldeak berea noiz emango zain dagoela jendea. Guk argi daukaguna zera da: hemen ez bagar guztiok mugitzen, ez badugu presioa areagotzen, gauzak bere horretan usteltzeko arriskua dago. Eta hori barkaezina izango litzateke. ETak euskal gizarteari zuzendu dio su-etena eta dei egin dio konponbiderako urratsak eman ditzan. Euskal Herriarrok dugu hitza eta ekintza.

## Usurbilgo HERRI BATASUNA



### Usurbilgo Herri Batasuna

**1** ETA erakundeak emandako urratsa, su-etena-rena alegia, sekulako urrats garrantzitsua dela uste dugu, berriz ere azaldu baitu gure herri honek bere eskubideak lor ditzan, ahaleginak eta bi egiteko prest dagoela. Horretaz gain, ekimen politikorako duen gaitasuna ere oso agerian utzi du.

Bere komunikatuan argi geratzen da denok dugula, Euskal Herriak bizi duen bidegurutze honetan, behingoz burujabetasunaren aldeko apustua egiteko ardura. Gure iritziz, euskal gizarteak itxaropentsu eta baikortasunez beteta hartu du berria.

Guretzat garrantzitsuena zera da, Euskal Herria burujabetza-aren bidean abiaraztea. Horrek irudi grafikoa izan zuen Lizarrako akordioan eta, gure ustez, hori geldiezia da, nahiz eta PP eta PSOE ezetzaren frontearen estankaturik egon. Honekin batera, zer esanik ez, ETA erakundearen ekimena oso lagungarria da, baina garrantzitsuena da euskaldunok hemendik aurrera dugun erronka eta batez ere lana.

**2** Helburua dudarik gabe, Euskal Herriak dituen eskubideak lortu eta praktika-ramatea da. Horrela bakarrik ziurtatuko da benetako pakea eta inoiz borroka armatua berriro beharrezkoa ez izatea. Hori nola egiten da? Gure ustetan, Euskal Herria eraikitzen joan behar

dugu, egunez egun, herriz herri eta arlo guztietan. Ezin dugu egun majikoaren zain gelditu. Españolismoa aurrera egiten ari da eta herriko lanean murgildu behar dugu abertzaleok gure Herri zahar honek bizirik iraungo badu. Herri Batasunari dagokionez lan horrek beste alderdi eta agente sozialekin harremanak garatzera eramango gaitu, zer nolako herria nahi dugun definitzera eta, ahal baldin bada, adostera. Beraz, hurrengo urratsa lanean jo eta ke aritzea da. Euskal Herriak apustua egin du eta mahai gainean jarri. Apustu hori irabazi behar dugu eta irabaziko dugu!



# San Praxkuak 98



**EIZA**  
**DENDA**

*Festak  
ondo igaro!*

Aginaga ☎ 943 36 12 06

**ARRATE**  
ZAHAR EGOITZA  
**TABERNA-JATETXEA**

*Ondo pasa San Praxkuak!*

Aginaga

Tlf. 36 63 40

viveros  
**Aranburu**  
Loreak- Landareak-  
Lore Sortak- Koroak-  
Loragintza

*Ondo pasa  
festak!*

Villa Aingeru  
☎ 943 36 64 60  
Aginaga





# Herri kirolen indarra San Praixkuetan

**S**an Praixku jaietako juer-ga eta parrandak entzuetetsuak dira. Aginagarrik, usurbildarrak, oriotarrak, aiarrak... jende asko biltzen da Aginagan. Hala ere festa hauetan kirolak beti izan du bere lekua. Lehen, aginagarraren arteko korrika apustuek eta txirindulari laisterketek jende asko biltzen zuten. Aurten, sega apustuak, palazko eta eskuzko pelota finalek, plater tiraketak eta sokatirak hartuko dute protagonismo nagusia.

Garai batean San Praixkuetan korrika laisterketak egiten ziren. Aginagarren arteko lehia izaten zen. Herriko gazteek eta ez hain gazteek zuten guztia ematen zuten jaietako proba hau irabazi asmoz. **Juan Ugarte "Txantxon"**ek ongi gogoratzen ditu laisterketa haiek. *"Ni San Praixkuetan hasi nintzen korrika. Oraindik gaztea nintzen eta ea laisterketan parte hartu nahi nuen galdetzen zidaten. Nik izugarrizko gogoia nuen, baina ez nekiela esaten nien. Azkenengo egunean korriko*

*nuela esan eta gero irabazi egin nuen". Txirindularitza probak ere egiten ziren, Aginagarren arteko dema hura ikusgarria izaten zen. Txirindulariak korrikalarien aurka ikusteko aukera ere izaten zen San Praixkuetan.*

Aurten, pasa den urtean bezala, sokatira txapelketa izango da urriaren 4an, San Praixku egunean. 640 kilotan 6 talde izango dira lehian: Zubietako talde bat eta Aginagako 5 talde: K.K.

Elkartea, Goitarrak, E.H. Askatu, Gaztiak eta Pakito boys. Aurretik taldeen pisaketa egingo da.

Aurten bada nobedaderik. Urriaren 11ean sega apustua izango da Iruntxoko zelaian. Bi aginagar izango dira aurrez aurre: **Joxe Pagola** eta **Inaxio Murua**. Bi gazte hauek ordubeteko lana burutu beharko dute. Dirudenez galtzen duenak aforria ordaindu beharko dio beste-ari. Onenak irabaz dezala!



## GALARRAGA GARRAIOAK

- \* LUR ONGARRIAK
- \* ZABOR BILKETA
- \* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46



Ondo pasa San Praixkuak!

943 36 27 73

## SEKAÑA

BEREZITASUNAK  
Txerrikumea,  
Txuleta eta Arraia

## ETXEBESTE JATETXEA

Ondo ibili  
Aginagako festetan!

Aginaga 943 36 27 40

# SAN PRAIXKU ZORIONTSUAK GUZTIOI



## TXAPARTEGI HARATEGIA

Ondo pasa  
San Praixkuak!

Aginaga 943 36 19 07



# Garai bateko Aginagako untziolak gogoratuz

**G**arai batean untziola garrantzitsuak zeuden Aginagan. XIII. mendean Orioko portuko iharduera ekonomikoak itsas industria garrantzitsuaren ezarpena ekarri zuen Aginaga aldera. XIX. mende arte Gipuzkoako eta momentu batzuetan penintsulako untziola esanguratsuenak izan ziren Aginagakoak. 200 itsasgizon behar zituen 1200 Tn. inguruko "Capitana Real" izeneko itsasuntzia Mapileko untzian eraiki zela uste dute adituek.

XVI eta XIX mende bitartean Usurbilgo lurretan eta Oria ibai ertzean lau untziola zeuden gutxienez: Mapil, Aginaga edo Zacoeta, Rutarte eta Urdaiaga edo Urdazaga. Leku hauetan grada batzuk jarri zituzten eta untziak eraikitze edo konpontzeko biltzen ziren zenbait gizon.

**Mapileko untziola** zen Aginagako garrantzitsuenak. Hemen pisu haundiagoko itsasuntziak egiten ziren eta horregatik honen inguruan etxebizitzak, almagarenak, zenbait grada, baratzak etab. jarri zituz


ten. Castillako errege-erreginentzat egiten zituzten pisu haundiko untziak, bai armada-arentzat eta baita merkantzia garraiatzeko ere. Horregatik, pisu haundiko untziak ziren untziola honetatik ateratzen zirenak.

**Urdaiaga edo Urdazagako untziola** Doña Maria De Guebara y Urdaiagarena zen 1590. urtean. 1600. urtean ordea, Don Ignacio de Soroa kapitainaren eskuetara pasa zen. Untziola honetan untxi txiki

eta ertainak egiten ziren. XVIII. mendean untziak egiteari utzi zioten.

**Rutarteko untziolari** buruzko datuak eskasak dira. Dirudienez 1675 eta 1680 bitartean hiru galeoi eraiki zituzten bertan.

Azkenik, **Aginaga edo Zacoetako untziola** daukagu. Hiru mendeetan zehar untxi asko egin zituen, batez ere txikiak eta ertainak. Gipuzkoako eta agian Euskal Herriko baporezko lehenengo untxia hemen eraiki zen 1870. hamarkadan.




## ATXEGA ARRAIN ETA MARISKOAK

*San Praixku jai zoriontsuak  
aginagar guztioi!*



Mutiozabal etxea, 17  
Aginaga

Tlf.: 943 36 10 81



## Angulas Mayo, s.l.

Aginagako angulak  
Angula-haztegi propioak

**Ondo pasa  
San Praixkuak!**

Toki-berri, z/g  
Aginaga  
Tlf.: 943 36 15 94

## A. BRUÑO E HIJOS S.L.



**Mariskada berezia bi pertsonentzat**

Angulak - Langostak - Mixerak - Nekorak  
Langostinoak - Txangurroa - Zentoiloa  
Almejak - Txangurro desmigatua - ...  
Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu

*Egin ezazu zure eskaera telefonoz!*

☎ 943 37 27 88 Usurbil

☎ 943 36 11 26 Aginaga

**Ondo pasa San Praixkuak!**



## Urriak 2 ostirala

20.00etan **jaien hasiera**, etxefero, buruhaundi eta trikitilariekin.

23.00etan **rock kontzertua: Morau, Xuia Reggae Band** eta **Kashbad**

## Urriak 3 larunbata

"*Preso, errefuxiatu eta deportatuen eguna*"

12.00etan **pala eta eskuzko pelota txapelketako finalak**

16.00etan Aginaga mailako **XVIII. mus txapelketa**

23.00etan **trikiti gaua: Imuntzo eta Beloki Eizakit**

Gaueko 1.00ean **herriko preso eta errefuxiatuei omenaldia**

## Urriak 4 igandea

"*San Praixku*" Zaharren eguna

9.00etan probintzi mailako **plater tiraketa**

11.00etan **meza nagusia** bertsolariekin

ondoren **zaharren hamaiketakoa** Aginaga sagardotegian. Bertan **Patxi Etxeberria** eta **Joxe Lizaso** ber-

tsolariak izango dira.

13.00etan **XVI. toka txapelketa**

17.30etan **Sokatira txapelketa** (640 kilotan). 6 talde izango dira:

### **Zubieta**

Aginagatik: **K.K.Elkartea, Goitarrak, E.H. Askatu, Gaztiak, Pakito.Boys**

Ondoren sardina eta sagardo banaketa trikitilarietz lagunduta

## Urriak 8 osteguna

21.00etan **Felipe Uriartek "Alegiazko herrialde bat"** mendiko diapositiba emanldia eskeiniko du zinema aretoan.

## Urriak 9 ostirala

"*Umeen eguna*"

9.00etan umeen jolasak

14.00etan **umeen bazkaria**

Ondoren berriz ere **jolasak** eta **sari banaketa**.

17.00etan **Takolo, Pirritx** eta **Porrotx**.

Ondoren **txokolata banaketa**.

23.00etan **dantzaldia Izotz taldearekin**.

## Urriak 10 larunbata

"*Oilasko biltzaileen eguna*"

Goizeko 6.00etan **oilasko biltzaileen gosaria** eta ondoren trikitilariekin batera martxan jartzeko garaia.

14.00etan **oilaskobiltzaileen itzulera**.

22.30etan **bertsolariak** zinema aretoan: **Jon Maia, Oihane Enbeita, Mañukorta** eta **Sebastian Lizaso**.

Dantzaldia **Laiotz** taldearekin.

## Urriak 11 igandea

"*Sagardo eguna*"

11.00etan **sega apustua**. **Joxe Pagola** eta **Inaxio Murua** aurrez aurre. Iruntxoko zelaietan ordu beteko lana

17.00etan **sagardo dastaketa**. Aginaga eta **Urdaira** (Aginaga), **Saizar** eta **Egioleta** (Usurbil), **Arjeta** (Zubieta), **Otegi** (Lasarte), **Izagirre** (Añorga), **Otsua-enea**, **Akarregi**, **Rufino**, **Eizmendi** eta **Iparragirre** (Hernani), **Gartziategi**, **Lizeaga** eta **Larrarte** (Astigarraga).

21.00etan **Herri afaria** Urruñako musika talde batez lagunduta


12.00etan **jaiei amaiera Akelarre taldearen dantzaldiarekin**.

**SAN PRAIXKU JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU AGINAGAR GUZTIOI!**



**JUAN MANTEROLA  
E HIJOS**

Galardi etxea  
AGINAGA




Telf.: 943 36 11 16  
36 20 52  
Faxa: 943 37 02 63



## Josanton Artzeren olerkiak liburu eta CDan

**J**osanton Artzek "Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat" bere azken lana aurkeztu zuen pasa den irailaren 30ean Txitxardin beltza jatetxean. Zumarraga-Urretxuko "Hits eta fits banda" lagun hartuta izen bereko olerki emanaldiak egin ondoren, poemaldi hartako olerkiak hiru moldetan aurkeztu ditu: entzuteko da diskoa, irakurtzeko liburua eta poemaldian nola jantzi ziren ikusteko argazkiak.

Azken zortzi urteetan egindako olerkietako batzuk irakurri eta entzun ahal izango dituzu "Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat" lan honetan. Olerkiak koroaz esanik emateko asmoa gorpuztuta emanda hainbat



ekitaldi egin dituzte Euskal Herriko zenbait txokotan Zumarraga-Urretxuko "Hits eta fits" bandak lagunduta 1994a ezkeroztik. Orain, ikuskizun horretako olerkiak biltzen ditu Josanton Artze "Hartzut"ek


liburu eta CD batean. Honekin batera, liburuaren azken zatian emanaldi horietan ateratako zenbait argazki jarri dituzte, han zerabilten sinbolismoa agertzeko, zergatik jantzen ziren horrela esplikatzeko.

## Aurtengo lehen izokinak Oria ibaian gora

**B**adatoz izokinak! Pasa den urtean igo omen zen Oria ibaian gora azken 100 urteetako lehen izokina. Orain, irailaren azken bi asteetan, beste lau izokin harrapatu dituzte Orbeldiko presaren parean dagoen pasabidean.

Lau kiloko bi eme eta bost eta bi kilo eta erdiko bi ar izan dira Orbeldi parean harrapatu dituztenak. Izokin kumeak Oria ibaian askatzen orain dela hiru urte hasi ziren. 10.000 inguru ibairatzen dituzte urtero, baina orain harrapatu dituzten hauek ez dira Oria

ibaian askatutakoak, Urumea edo Bidasoa ibaietatik datozenak direla uste du Iñigo Mandiola Foru Aldundiko ordezkariak..



Lau izokin hauek Irungo Ibarla piszifaktoriara eraman dituzte izokinen erreprodukzio programarekin jarraitzeko. Izan ere, haztegi horretan arrautzak jarrazte eta horrietatik jaiotzen diren kumeak ibaira botatzen dituzte jaten hasi bezain laister.

Kume hauek itsasora joatea eta hazitzen direnean berriz ere ibai honetara arrautzak jartzera itzultzea da programa honen helburua. Orain arte Orbeldi paretik gora joateko zailtasunak zituzten, baina pasabide honekin arazorik gabe gainditzen dute presa.

ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Arizeta Kalea, 1  
Tif 943 36 21 64  
USURBIL

# MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

Etxebeste kalea, 3 - Tif. 943 36 11 06

TABERNA  
JATETXEA

**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL



## Usurbilgo ezta irabazle Okela eguneko lehiaketan



Iraila iritsitakoan erlezainak ezta biltzen hasten zirela aipatu genuen aurreko alean. **Joxe Mari Alduntzin eta Julian Bengoetxea** pasa den irailaren 15ean hasi ziren ezta ateratzen. Sariak lortzen hasteko ez dute asko itxaron behar izan. Irailaren 20an, igandean, euskal okela eguna zen Lasarten. Antolatutako ekitaldien artean ezta lehiaketa ere izan zen, eta usurbildarrek harantz eraman zuten ezta. Arratsaldean kopa haundi batekin itzuli ziren Usurbila. Ezta guztien artean bi usurbildarren ezta izendatu zuten onena. **Joxe Mari Alduntzinen** esanetan, "gure eztiak eta beste batek puntu kopuru berdina jaso zuten, baina hezetasun gutxien gureak zuenez gure ezta txapeldun"

## Egioleta baserrian sagardorik onena

Usurbilgo sagardogileen sagardoa izan zen alkate pasa den irailaren 19an Aitzagan egin zen afarian. Aitzaga elkarteak laugarren urtez antolatutako Usurbilgo Sagardogileen arteko Sagardo lehiaketan Gorostidi, Olanoenea, Aialdenea, Arratzain, Egioleta eta Igartzazabal baserrietako sagardoa dastatzeko aukera izan zuten afarian izan ziren 42 lagunek. Sei sagardoak bi aldiz probatu zituzten, bakailaoarekin lehendabizi eta sahieskiarekin gero, eta mahaikide guztiek emandako puntuazioaren arabera **Egioletako sagardoa** izan zen **onena**.



## Usurbildarrak Segovian Ramon Uriberekin



Irailaren 19an presoan aldeko *Gure artera bilgunea* Segovian izan zen. 53 lagun joan ziren Ramon Uribe preso usurbildarrari elkartasuna adieraztera eta presoan eskubideak aldarrikatzera. Berarekin egoteko aukera lau pertsonen bakarrak izan zuten arren, gainontzekoak kartzelaren aurrean bildu ziren, pankarta eta guzti etorri zen Segoviako 20ren bat pertsonen lagunduta. Bisita amaitzean, kartzelaren atzekaldera jo zuten Ramon ikusteko, eta berarekin hitz egiteko aukera ere izan zuten. Ondoren Segoviako akueduktorako bidea egin zuten presoak ekar ditzaten **eskatuz**.

### JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura


Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**LABRIT ZABALA "BIDE ERTZEAN" TALDEAREKIN**

Deabruak Teilatuetan taldean aritu izan diren Ubeda anaiak talde berri bat sortu dute: Bide ertzean. Proiektu berri honetan, maxi CDa laister kaleratuko dute. Talde honetan usurbildar baten ahotsa entzun ahal izango dugu. Izan ere Labrit Zabala laguntza izango dute Bide ertzean taldekoek. Karlos Aranzegi, Fran Iturbe eta Labrit Zabala bera dira Ubeda anaiekin batera CDan parte hartzen dutenak. "Bide Ertzean" en lan hau Gaztelupeko Hotsak etxeak argitaratuko du.



**A**ndatzpe Elkarteak sortu zenetik 50 urte bete direnean, **Teodoro Aranburu, Miguel Zugasti, Martzial Goenaga, Joxe Goenaga eta Martin Manterola** fundatzaileak omendu zituzten joan den irailaren 20an udaleko pleno aretoan Andatzpe elkarteak egin zuen Batzar Orokorrean. On-doren giro bikaina izan zuten elkarteak egin zen bazkarian. 68 bazkide inguru bildu ziren eta bapojan eta edan ondoren gustora entzun zituzten Joxe Azpillaga eta Joxe Agirireren bertsoak.

**ESKUZ BINAKA LAU ETA ERDIAN PELOTA GOXOAZ**

Aurten ere lau eta erdi barruko eskuz binaka txapelketa antolatu du Aitzaga elkarteak. Bostgarren urtez jarraian pelota goxoarekin jokatu ahal izango dute Usurbilgo pelotari federatugabeek. Izen emateko epea urriaren 2an amaituko da eta bikote bakoitzak 3000 pezeta ordaindu beharko dituzte ematerakoan. Egun horretan bertan, eta arratsaldeko 19.30etan partidua antolatuko bilera egingo da Aitzaga elkarteak. Partidua aurreko urteetan bezala ostiraletan jokatuko dira.



**U**rriaren 25eko hauteskunde autonomikoei begira sortu den Euskal Herriarrok taldearen aurkezpena egin zen pasa den irailaren 18an herriko frontoian. Hauteskunde zerrenda osatzeko bildu behar zituzten sinadurak bikoiztu ondoren "Euskal Herriak du hitza eta erabakia" lemapean **Xabier Arregi** Zubietako alkatea eta **Mikel Goienola** Herri Batasunako kideak Lizarrako akordioaren eta su etenaren ondoren, benetako apustua orain hasten dela azpimarratu zuten.



**P**asa den irailaren 20an Euskal jaia ospatu zen Zubietan. Plaza inguruan giro ederrean eta eguraldi bikainarekin hainbat ekitaldiz gozatu ahal izan zuten bertara gerturatu ziren guztiek. Goizean, zubietarrek Endika Abril txapelketako partidua galdu bazuten ere, honek ez zuen euskal giroa nagusi izan zen egun pasa bikaina ilundu. Zubietako ganadua bidean egon zen ikusgai goizean. Arratsaldean, berriz, "Kimu Berriak" taldeak antzerki polita eskaini zuen.

**ORBELDI****MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!***USURBILGO HORTZ KLINIKA****FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 7820170  
USURBIL*Zinkildegia*Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunakAritzeta 1 behean,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



## Eskuz pelota txapelketaren finalen atarian

**U**surbilgo frontoia pelota hotsek alaitu dute azken bi hilabeteetan. Asteburuetan pelota partiduak izan ditugu. Eskuz pelotan binakako XXVI. Usurbilgo txapelketako partiduekin herriko pelota zaletasuna asetzen saiatu dira berriz ere Andatzpe-Peña Pagola elkarteak. Urriaren 2an jokatuko dira azken partiduak gaueko 22.00etan. Etxabe-Bengoetxea eibartarrek Azpiazu-Mintegi bikotearen aurka gazteetan eta Eizagirre-Astiggarraga azpeitiarrak Arretxabaletakako Errasti anaiei aurka helduetan.


Uztailaren 10ean ekin zitzaion aurtun 26. aldiz antolatu den txapelketa honi. Andatzpe eta Peña Pagola elkarteak ez dute huts egin. Euskal Herriko afizionatu mailako pelotaririk onenak ekartzea ezinezkoa izan bada ere, orokorrean, txapelketa jokatu duten pelotarien maila ona izan da.

Gazteek oso maila ona eman dute. 27 bikotek eman zuten izena eta guztira 33 partidu ikusteko aukera izan da Usurbilgo frontoian. Tartean ziren usurbildarrak ere. **Mikel Kastresana** eta **Jon Olaizolak** osatutako bikoteak ez zuen zortirik izan eta ez ziren final laurdenetara iritsi. Pasa den irailaren 25eta 26an jokatu ziren finalerdiak eta gazteen mailako partiduak estu estuak izan ziren. Ostiralean, **Etxabe-Bengoetxea** eibartarrek 22-20 irabazi zieten **Dominguez-Baez**

donostiarrei. Larunbatean, berriz, **Azpiazu-Mintegi** Azkoiti eta Lizartzako pelotariak lortu zuten finalerako txartela. 22-19 izan ziren nagusi **Irazoki-Alzaguren**en aurrean.

Helduetan ere ikuskizun polita eskaini dute pelotariak. 40 bikote aritu dira lehian, lehenengo kanporaketa bidez eta ligaxkan gero. Usurbildarrei dagokionez pelotari bakarra izan dugu tartean, **Enrike Huizi** hain zuzen ere. Añorgako txapelketa irabazi ondoren aukeraren bat bazuten berak eta **Zilbeti** nafarrak, baina ligaxkako azken partidua galdu eta finalerdietatik kanpo gelditu ziren. Finalerdietan, Arretxabaletakako **Errasti anaiek** 22-20 irabazi zieten **Agesta-Errandonea** bikote nafarrari eta **Eizagirre-Astiggarraga** azpeitiarrak nagusitasun osoz lortu zuten finalerako txartela **Castellanos-Hombre** bikoteari 22-12 irabazi ondoren.

Txapelketa hau Andatzpe-Peña Pagola elkarteak antolatzen du, baina guzti honen atzean jende gehiago dago eta antolatzaileek jaso duten laguntza guztia eskertu nahi dute. Alde batetik herriko denda eta elkarte desberdinen laguntza goraiatu nahi dute, karteletan agertuaz beren laguntza eman baitute. Bestalde ezin ahaztu Usurbilgo udala eta Illunbe, Iruin, Aginaga, Saizar eta Araeta sagardotegiak. Hala ere, hauekin batera herritarren ekarpena garrantzitsua izan dela argi utzi nahi du **Enrike Huizik**. *"Gure diru iturri garrantzitsuena errifetako dirua da, eta eguna joan eguna etorri usurbildarrek errifak erosi egiten dituzte. Hori eskertzekoa da benetan. Eta noski, errifak saltzen ibiltzen diren **Jexux Mari Zulaika** eta **Joxe Mari Eizagirre**ren lanak zerikusit haundia du guzti honetan".*



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 943 36 61 97

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



# J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26



**URRIAK 2 ostirala**

- Usurbilgo eskuz pilota binakako txapelketako azken partiduak. Ilunabarreko 22.00etan hasita:

Gazteak (finala)

Aspiazu-Mintegi  
Etxabe-Bengoetxea

Helduak (finala)

Eizagirre-Astigarraga  
Errasti anaiak

**URRIAK 3 larunbata**

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Usurbil F.T.- Ostadar.** Harane futbol zelaian goizeko 11.00etan.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T.- Tolosaldea.** Arratsaldeko 17.30etan Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil E.T.- E.H.U.** Oiardo kiroldagian arratsaldeko 18.00etan.

**URRIAK 4 igandea**

- **Endika Abril** errebote txapelketa-ko partidua Zubietako plazan.

11.00etan hasita:

**Zubieta I-Hendaia**

- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Danena-Usurbil F.T.** Zizurkilen.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Intxaundi-Usurbil F.T**

**URRIAK 10 larunbata**

- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Antoniano-Usurbil F.T.** Zarautzko Asti futbol zelaian.
- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Usurbil F.T.-Ostadar.** Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Arabacan -Usurbil E.T.**
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T.-Añorga.**

**URRIAK 11 igandea**

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Texax Lasar.-Usurbil F.T.**
- **Endika Abril** errebote txapelketa-ko partiduak Zubietako plazan:  
9.30etan **Solis-Hasparren**  
11.30etan **Baigorri-Zubieta II**



2. nazionaleko eskubaloi taldeak E.H.U bizkaitarren aurka jokatu du Oiardo kiroldagian urriaren 3an.

**Emaitzak****Futbola****Irailak 19-20**

Usurbil F.T 2 - Zumaiaiko 0 (1.R.)  
Texas Lasar. 0 - Usurbil F.T 12 (ju.m)  
Usurbil F.T 1 - Hernani 2 (n.)  
Usurbil F.T 0 - Urnieta 3 (k.m)

**Irailak 26-27**

Kilimon 1 - Usurbil F.T 0 (2.R.)  
Usurbil F.T 0 - Intxurre 0 (ju.m)  
Dumboa 8 - Usurbil F.T 1 (n.)  
Lasarte Oria 0 - Usurbil F.T 3 (k.m)

**Eskubaloia****Irailak 19-20**

Usurbil 14 - Portugalete 33 (2.N.)

**Irailak 26-27**

Pulpo 24 - Usurbil 20 (ju.m)

**Pelota txapelketa (finalerdiak)****Jubenilak**

Etxabe-Bengoetxea 22  
Dominguez-Baez 20

Aspiazu-Mintegi 22  
Irazoki-Alzaguren 19

**Helduak**

Errasti anaiak 22  
Agesta-Mitxelena 20  
Eizagirre-Astigarraga 22  
Kastellanos-Hombre 12

**Endika Abril errebote txap.****Irailak 20**

Ustaritze 13 - Zubieta II 2  
Bear Zana II 10 - Baigorri 13  
Hendaia 13 - Baiona 7

**Irailak 27**

Solis 8 - Hasparren 13  
Baiona I 13 - Kanboarrak 3  
Baigorri 13 - Zubieta II 6


**Laburdurak**

R.: errejionalak    ka.: kadeteak  
N.: nazionala    n.: neskek  
ju.: jubenila    m.: mutilak

**BORDATXO  
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



**Ekaitz**

**Bideo eta ARGAZKIak**

Usurbil

Tel: 943 36 14 87

oiartzun


**Andatza  
karrozeria**

Gumer Sánchez


Osinalde industrialdea  
Errota Berri kalea  
USURBIL    ☎ 943 36 36 77



## Geratzen da oraindik jende ona



Pello Zubeldia



- ▣ Udaltzain burua
- ▣ 38 urte
- ▣ Futbolari ohia eta squashean iaioa
- ▣ Perretxikuzalea

Orain dela urte gutxi gertatu zitzaidan pasadizo baten berri ematera natorkizue. Nire anaiak, lan kontuak medio, Irlandan pasa behar izaten zituen bolar da batzuk eta bera ikusteko aitzakian, tarteka eskapada batzuk egiten nituen goiko herri horretara.

Hauetako bidaia batean, Hendaiatik irten nintzen kamioi batean Frantziako iparraldera igotzeko asmoz, Cherbourg herriko kaiaraino. Handik Irlandako hegoaldera (Cork herrira) doan barkua hartu eta, hogeitau orduko bidaia egin ondoren, bertara ailegatuzeko asmoz.

Etorri zen eguna eta aurrez hitz eginda nengoan kamioi gidariarekin irten nintzen goruntz. Badakizue, urrun zaudenean hemengo gauzak ze preziatuak izaten ditugun, eta noski, gora igo behar nuela eta, anaiak hura aprobetxatu behar ba. Gauza pila batekin, pakete mordo batekin abiatu ginen.

Hamahiru bat ordu pasa genituen Cherbourgora iritsi aurretik, bidean gure otorduak eta egonaldiak egin ondoren noski. Kaien ginela arazo txiki bat sortu zitzaidan, hartu behar nuen barkua hurrengo eguneko ilunabarrarte ez zen irteten.

Kamioizaleak Ingalaterrako hegoaldera pasa behar zuela eta, nahi banuen berarekin bertara joatera gonbidatu ninduen. Bigarren txoferra bezala egingo nuela joan-etorria eta gutxienez hurrengo eguneko eguardiarte entretenituago pasako nuela. Hala, neramazien trastu guztiak bertan utzi eta Ingalaterrara abiatu ginen itsasontzi batean. Lau edo bost bat ordu pasa genituen Pooleko kaiara iristen. Ez dizuet esan marisko kamioia zela eta lan kontu horrekin igotzen zela.

Poole kaian jeitsi eta beste kamioi batzuk bertan ziren aipatutako lanari ekiteko. Noski, lanean ari ziren bitartean, begira ezin egon, esku bat botatzea ezinbestekoa iruditzen zitzaidan eta honela egin nuen. Lan hartan ari nintzela Galesko bi gazte ezagutu nituen, hauek kaia honetara mariskoa saltzera jeitsi ziren.

Begira nondik, nirekin igo zen kamioi gidariak Irlandara nindoala aipatu zien eta Cherbourgoren gertatutakoaren berri eman ere bai. Bi gazte haiek, kamioia hustu bezain azkar Gales aldera igo behar zutelara esan zidaten eta nahi izan ezker beraien eramango zidatela Irlanda parean geratzen den beste kaia

batera, Pembrokeko kaiara, eta handik lau ordu irlan izango nintzela.

Ez nuen bi aldiz pentsatu, batetik berriz atzera joan (Cherborgora) eta hurrengo ilunabarrarte itxaron behar, eta bestetik beste hogeitau ordu itsasontzian pasatzea.

Ikusi egin behar zen mutil haien jarrera, beraien hartu zizkidaten neramatzan pakete guztiak, kamioira igo eta uneoro ahaleginak egiten ni ondo eta gustura ikustearren.

Sei edo zazpi orduko bidaia dago Ingalaterrako hegoaldeetik (Pooletik) Galesko kaiara (Pembroke). Bidean, Galesko musika entzunez ilunabarra iritsi zitzaigun eta afaltzeko ordua ere bai. Hala, jatetxe batean geratu eta bertan izan nuen bigarrenengo sorpresa, alegia, afaria beraien gonbidapena izango zela adierazi zidatenean. Ez zidaten utzi ezta bigarrenengo kafea ordaintzen ere. Amaitu ondoren, ia gauez, azken tramua egitera abiatu ginen.

Bristol herri handia zeharkatu eta gutxira Galesko muga pasatzen da, eta honela egin genuenean gazte hauek bere herriko arnasa hartzen zutelara adierazi zidaten. Ingalaterrako jendea ez zuten gustoko eta hobe sentitzen ziren mugaz bestalde.

Pembrokeka iritsi ginenean, berriro ere gazte hauek eman zidaten hurrengo sorpresa. Kamioitik irten ondoren, batek niri trastuak jaisten laguntzen zidan bitartean, bestea barkua noiz irteten zen galdetzer joan zen. Jarraian, azken hau korrika etorri zitzaigun barkua hamar minutura irteten zela esanez. Bien artean trastuak barkura sartzan lagundu zidaten, eta gainera, ordurako bidaiarako txartela leihatilatik aterata zeukatzen. Hoberena zera izan zen, txartel hura ere beraien kontura izango zela eta euskaldun bati gonbidatu izanak arrotz sentiarazten zituela esatea. Alferrik izan ziren nire saiakera guztiak eta azkenean besarkada bero batez agurtu nituen. Hori bai, aurrez jakin ahal izan nuen zein ziren beren helbideak, eta espero dut Galesko musika bezain gustukoa izango dutela hemengo musikarekin bidalitako zintak.

Pembroketik Irlandako Rosslare herriko kaiara lau ordu bakarrik pasa nituen eta tramua horretan Galesko mutiletaz besterik ez nintzen gogoratzen.

Honelakoak ote dira GALESTAR guztiak?



## Gela bat gehiago Aginagako eskolarentzat

**A**urtengoa ikasturte hasiera berezia izan da Aginagako haurrentzat. Aurten egoitzaz aldatu dute. Hainbeste urtetan egon diren lekua utzi eta beste ate batetik sartzen dira aurten haurrak eskolara. Ikasturtea hasi dute, bai, baina ikasleen gurasoek beste gela bat eskatzean ikamika sortu zen guraso eta parrokiaren jabeen artean. Udalaren bitartekaritzaz bi aldeak akordio batera iritsi dira

Arrate zahar egoitza dagoen pisu berean, pasiloaren amaieran ematen dituzte klaseak Aginagako haurrek. Parrokiak leku hori udalaren esku utzi ondoren, eta udala, irakasle eta hezkuntza sailaren oneritziarekin, Aginagako eskolarentzako hiru gela prestatu ziren.

Ikasturtea hastearekin batera arazoak sortu dira. Ikasleen gurasoek eta irakasleek beste gela bat eskatu dute, gantxilo eta eskulan ikastaroak ematen diren gela haundia hain zuzen ere. Parrokiko taldea, ordea,



ez zegoen gela hau uzteko prest.

Egoera hau ikusita udalak sartu behar izan du tartean. Irailaren hasieran gurasoak, irakasleak, elizako junta eta udaleko ordezkariak bildu ziren. **Joxe Antonio Altuna** alkatearen esanetan *"lehen ordu eta erdian blokeatuta egon zen guztia, alde bakoitzak bereari eusten zion. Baina hura konpondu beharra zegoen, iskanbila horrekin jarraitzea ezinezkoa zen"*.

Azkenean bi aldeak akordio batera iritsi ziren. Gantxilo eta eskulanak egiteko erabiltzen zuten gela Aginagako eskolako gela izatera pasako da eta aurrez aipatutako ikastaroak goiko pisuan dagoen gelan emango dituzte, udalak gela hau behar bezala prestatu ondoren, noski. Alkatearen esanetan, *"elizako juntak egin duen esfortzua eskertzekoa da. Beraiek erabiltzen duten gela eskolari utzi baitiote. Honekin eskolak asko irabaziko du"*.

## Irakurtzeari eta idazteari beldurra kentzeko ikastaroa

**U**rsbildar askok, helduek gehien bat, euskaraz irakurri eta idazteko zailtasunak dituzte. Euskaraz hitz egiten dute, euskaldun peto-petoak dira, baina euskaraz idazterakoan arazo ugari dituzte, baita irakurtzerakoan ere, eta beldurraren beldurrez ez dute aurrera egiten. Hauentzako zuzenduta dago "Oraina euskaraz da" 50 orduko ikastaroa.

Euskaraz irakurri eta idaztea erraza da. Mezu hau lau haizetara zabaldu nahi da kanpainarekin berezi honen bidez. UEMA eta AEKren arteko hitzarmenaren ondorioz, UEMAn sartuta dauden herrietan, euskaraz idatzi eta irakurtzen ikasteko 50

orduko ikastaroa egiteko aukera eskaintzen dute udala eta AEKren laguntzaz. Euskaldunei zuzenduta dago ikastaro hau. **Xabier Pikabearen** esanetan,

*"jende asko eta asko euskaraz irakurri edo idazteko beldurrez egon ohi da. Lehen ikasi ez zuelako edo oraingo euskara batuarekin zailtasunak dituztelako atzera egiten dute"*.



Orain, ordea, ikastaro berezi honekin hori guztia bultzatu nahi da. Euskaraz irakurri eta idaztea erraza da eta usurbildarrei eskaintzen zaien aukera hau aprobetxatu beharra dagoela argi dauka **Xabier Pikabeak**. *"Ikastaroaren kostua oso txikia da, AEK eta udalak kostuaren zati bat bere gain hartu dute"*. Beraz, ez dago aitzakiarik. Animo, AEKn eman dezakezu izena urriaren 7a baino lehen.



## Argiaren adiskideak taldea sortu da

**A**rgiaren adiskideak, Usurbilgo taldeak aurkezpen ekitaldia egin zuen pasa den irailaren 25ean Udarregi zaharrean. Astekari honen herriko harpidedunen aurrean eman zuten beraien egitasmoen berri. Argia astekariari laguntzea da talde honen helburu nagusi eta bakarra.

Historikoki Argia astekariari lagundu dion jendea badago zenbait herritan. Epe jakinik izan gabe, konpromezurik gabe lagundu izan dute hauek, noizbehinka eta oso gauza atipikoetan. Orain, laguntza hori nolabait egitura-tzea nahi izan du Argiak, ez formalismo guztiakin baina bai enpresan partizipazio modu bat emanda. Honela, urtean zehar gauza konkretu batzuk egiteko konpromezua hartuko dute.

Usurbilen osatu da Argiaren adiskideak-en lehenengo taldea Argiaren harpidedun batzuek bultzata eta hasiera hasieratik talde honek konpromezu zehatz bat hartu du: mailegu bat kontratatu dute eta horren dirua Zeruko Argia enpresan jarri. Mailegu horri beraiek egin beharko die aurre eta horretarako, diru sarrerak izan ditzaten, herrian hainbat ekitaldi antolatuko dituzte.

Argiaren adiskideak  
Usurbilgo taldea oso gauza



puntualak egiteko elkartuko den talde bat da **Joxe Mari Irazustaren** esanetan, "nik ez dut ikusten beste kultur taldeen parean, oso gauza konkretu baterako sortu da: argiari laguntzeko". Honela, San Praixkuetan burutuko dute lehen lana. Aginagako jaietan egiten den herri afaria beregan hartu eta lan guztia beraiek egingo dute. Jana prestatu, zerbitzatu, garbiket... Abenduan antolatzen den pailazoen jaialdian atera-

tzen den dirua Argiarentzat izangi da etab. "Azken finean talde hau noizbehinka bilduko da epe jakinik gabe eta zerbait antolatzen saiatuko dira".

Horrelako taldeek dinamika haundiagoa sortzeko aukera emango dutela uste dute. Kasurako, zenbait lanen aurkezpenak normalki leku konkretu batzuetan egiten dituzte. Hala ere, herrietan honelako taldeak izanda, hauei protagonismo gehiago eman eta aurkezpen horiek taldeen babesean egingo lituzkete, taldeak lagunduta. Joxe Mari Irazustaren arabera denborarekin fundazio forma bat hartu dezake. "Dinamika horretan laguntza eta protagonismoa tartekatzen saiatu eta guzti honek fundazio forma hartuko du herrietako laguntza nahiz bestelako laguntzekin. Bide batez, Zeruko Argiaren egiturari eta kapitalean presentzia garrantzitsua izango du".



## Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 943 36 12 20



**ZUMETA JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

## ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

3.475 pta. (personako)

## ZENDOIA-ENEA



Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



## Bota bertsoa

### San Praixkuak gainean ditugu

Lana ta "pesta" ezinbestean  
dira elkarren lokarri  
urte osoko lanketa ostean  
festa baita lasaigarri  
agiñatarrok jarriak gara  
San Praixku jaien egarri  
urtean behingo "tanta" dugu ta  
gozatu buru-belarri

Hemen nago herriminez  
San Praixkuen eraginez  
hau da urtero dudan arantza  
hor egon ezinez  
baina diotsuet zinez  
ibil giro atseginez  
dantzan jotake eta euskaraz  
gogotik eginez

Egilea: Xabier Aranburu "Xomorro"

## Lehiaketa



### Zein urtetik zein urtera egon ziren honako hauek udaleko ordezkari modura?

Asmatzaileen artean **Bordatxon** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Mediku-etxea deiturikoa da aurreko aleko lehiaketan agertzen zen argazkiko etxea eta Kaleberrin dago udaltxearen ondoan. Gaur egun Andatza K.K.E. eta DYAk era-biltzen dute. Asmatzaileak asko izan dira, baina hauen artean **Joxepi Alkortak** izango du **Antxetan** afaltzeko aukera.

# P A T R I

## J A T E T X E A

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 943 36 22 55

# JUANTXO

## Burdindegia



Kale nagusia, 10  
Usurbil 943 37 00 08



AGURTZANE  
SOLABERRIETA  
MESA

## "apelliduak abizendu"

**Noaua!!**  
HAMABOSTEKARIA



USURBILGO UDALA



Usurbilgo  
Euskal Herriaren Euskaraz

SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA  
**IOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2ª Esk  
Usurbil - Gipuzkoa 943 37 19 54

INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA



### URRIAK 2 ostirala

- **San Praixku jaien hasiera** Aginagan. Gaueko 23.00etan rock kontzertua: **Morau, Xuia eta Kashbad**

### URRIAK 3 larunbata

- Aginagan, **preso, errefuxiatu eta deportatuen eguna.** 12.00etan **pala eta eskuzko txapelketako finalak** Gaueko 23.00etan trikiti gaua: **Imuntzo eta Beloki eta Etzakit**

### URRIAK 4 igandea

- Probintzi mailako  **tiro plaitoa** Aginagan goizeko 9.00etan hasita. Arratsaldean **sokatira txapelketa.** Sei talde.

### URRIAK 5 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren **kozentrazioa** errotondan arratsaldeko 20.00etan
- **Intsumisio egunean laguntzeko** prest dauden **herriko taldeei deialdia.** Udarregi zaharrean arratsaldeko 20.30etan.

### URRIAK 8 osteguna

- **Diapositiba emanaldia** Aginagako zine aretoan. **Felipe Uriartek "Alegiazko herrialde bat"** aurkeztuko du.

### URRIAK 9 ostirala

- **Umeen eguna** Aginagan. Umeen jolasak egun guztian zehar eta **Takolo, Pirritx eta Porrotx** arratsaldeko 17.00etan. Gauean **Izotz taldearekin** dantzaldia.

### URRIAK 10 larunbata

- **Mobilizazio eguna Usurbilen.** EHE-k antolatuta urrian **epaituko dituzte hainbat gazte** dagozkigun hizkuntz eskubideak aldarrikatzeagatik. Horietatik **hiru usurbildarrak** dira. **Manifestazioa** arratsaldeko **20.00etan** frontoi atzetik abiatuta.
- Intsumisio egunaren bezperako kontzertua: **Blues Torpes, Latzen, Sociedad Alkoholika eta Ekon.**

### URRIAK 11 igandea

- **Sagardo eguna** Aginagan. Goizeko 11.00etan sega apustua. Arratsaldeko 17.00etan **15 sagardotegitako sagardoa** dastatzeko aukera.

### URRIAK 13 asteartea

- EHE-k antolatuta, **kozentrazioa** goizeko **9.30etan** Donostiako epaitegiaren **aurrean.** Sei gazte epaituko dituzte, horietatik bat usurbildarra.

### KINTO AFARIA UGARTEN

1955. urteko "kintoen" afaria antolatu da Ugarte jatetxean. Urriaren 17an izango da. Izena emateko epea irekita dago eta bi telefono hauetara deitu dezakezue:

Maribi Arrospide 943-365835

Josune Aranburu 943-372646

### INTSUMISIO EGUNA URRIAREN 11AN

11.00etan: Txupinazoa  
**Elizalden:** bertsolariak, txalaparta, "Ni fu ni fa" antzerkia...  
**Udarregi zahar atzean:** antzerkia, bideoak, trikitalariak..  
**Ikastolan:** malabaristak, txaranga, dultzaineroak, paella mundiala, Joxe Mari Karrere, Joxi Ubeda, Mikel Markez, Xabier Montoia, Morau...  
**Futbol zelaian:** kontzertua. Alaitz eta Maider, Xuia, Anestesia...

### ESKULANEN ERAKUSKETA AGINAGAN

Urte osoan zehar egindako eskulanak ikusgai izango dira apaiz etxearen azpian San Praixku jaietan. San Praixku egunean goiz eta arratsaldez irekiko da erakusketa. Hurrengo asteburuan goizez bakarrik.

BAZKIDE TXARTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!!  
HAMABOSTTEKARIA

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

419

bazkide ditu Noaua!  
 Zu ere egin zaitetz  
 bazkide



## PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturean, euskararen, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jauna-ekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)

**Galdera:** Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

**Emilio:** Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiatagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

**G.** Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

**E.** Euskarazko argitalpenen literatura sariatzen eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

**G.** Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

**E.** Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoaz jartzen; baina, hori bai, beti zaletasuneko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,  
Cafés BAQUEko  
Zuzendaria Gerentea.

**G.** Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

**E.** Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldiskarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi eredu.

LARRAITZ ODRIOZOLA


# ELDUAIEN Usurbilera iritsi da!

## Ingelesa ikastea ez da hain garestia

Hemendik aurrera 3100 pezetatik aurrera etxeko txikienek (4-9 urte bitartean) gaur egun hain beharrezkoa den hizkuntza hau ikasteko aukera izango dute herrian.



THE ARCH OF EUROPE  
GOLD STAR AWARD  
FOR QUALITY



LIDER DEL  
BUEN SERVICIO  
1996




Zubiaurrenea 6, behea

E-mail: [elduaien.infomail.es](mailto:elduaien.infomail.es)  
Telefono eta faxa: 943 37 14 02



# INTSUMISIOA DESOBEDIENTZIA DESMILITARIZAZIOA ASKATASUNA



**USURBIL  
URRIAK 11**



USURBILGO UDALA

